Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 29a, osteguna — 100 — Jueves, a 29 de mayo de 2025



## HONDARRIBIKO UDALA

*Hondarribiko Plangintza Aholku Batzordearen erregelamenduaren aldaketa behin betiko onartzea.*

Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Hondarribiko Plangintzako Aholku Batzordearen erregelamendua aldatzeari.

Iragarkia 2025-03-26an 58. zk. duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 30 lanegunez jendaurrean egon da, baita 2025-03-26ko Berria eta 2025-03-27ko El Diario Vasco egunkarietan, udal web gunean eta baita udal iragarki oholean ere 2025-03-26tik 2025-05-13ra.

Jendeaurreko epea bukatu eta erreklamazio edota iradokizunik aurkeztu ez denez, hasierako onespenaren akordioa behin betikoa izango da.

Erregelamenduaren behin betiko edukia hauxe da:

Hondarribiko Udal Planeamenduko aholku batzordearen araudia.

### ARRAZOIEN AZALPENA

Botere publikoei dagokie hiritarrek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalean eta sozialean parte har dezaten bermatzea, tresna baita nortasuna aske garatzeko, eta hori ordena politikoaren eta gizarte bakearen funtsa baita.

Hiritarrek gai politikoetan parte hartzeko duten eskubidea, bai zuzenean bai ordezkarien bidez, alor guztietan sustatu eta adierazi behar da, bai norbanakoari dagokionez bai hura osatzen duten izaera desberdineko taldeei dagokienez. Alde horretatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 69. artikulua kontuan hartu behar da, eta tokiko Korporazioek hiritar guztiek bertako bizitzan parte har dezaten ahalbidetuko dute.

Hirigintzaren gaian, ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak beren printzipioen artean dauzka kontzertazio soziala, hiritarren parte-hartzea eta jendaurreko informazioa, eta, Plan Nagusiak behin betiko onesteko berezko edo eskuordetutako eskumena duten udalerrietarako, ezartzen du Hirigintzaren Planeamenduko Aholku Batzorde bat eratu beharra dagoela, kontsulta eta eztabaida izaera duen tokiko organo gisa, eta haren helburua hirigintzako planak gizartean kontzertatzea dela. Aholku Batzorde horren xedea da tokiko erakundeari urgaztea hirigintza antolatzeko dituen tresna nagusiak formulatzen eta onesten eta, zehatzago, Hiri Antolamendurako Plan Nagusikoak erabakitzen.

Aipatutako Lege horretako 110. artikuluak, dio Aholku Batzordea eratzeko eta haren oinarrizko ezaugarriak definitzeko Udal bakoitzak formulatu, tramitatu eta onetsi beharreko Araudi bat onetsi beharra dagoela. Alde horretatik, Hondarribiko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Erregelamendua hasiera batean onartu zuen Udalak 2008ko otsailaren 27an egindako osoko bilkuran. Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkeztu ez zenez, Erregelamendua behin betiko onartu zen, eta 2008ko uztailaren 8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Aprobación definitiva de la modificación del reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento de Hondarribia.*

El Ayuntamiento en sesión plenaria de 30 de enero de 2025 aprobó inicialmente la modificación del reglamento del Consejo Asesor del Planeamiento de Hondarribia.

El anuncio fue sometido a información pública durante el plazo de 30 días hábiles mediante inserción en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa num. 58 de 26-03-2025, así como en los periódicos Berria de 26-03-2025 y El Diario Vasco de 27-03-2025, en la web municipal y en el tablón de anuncios municipal desde el 26-03-2025 al 13-05-2025.

Transcurrido el plazo de la exposición pública sin que se hayan presentado reclamaciones y/o sugerencias, el acuerdo de aprobación inicial se eleva a definitivo.

El contenido defnitivo del reglamento es el siguiente:

Reglamento del consejo asesor del Planeamiento Municipal de Hondarribia.

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Corresponde a los poderes públicos facilitar la participación de toda la ciudadanía en la vida política, económica, cultural y social como instrumento que propicie el libre desarrollo de la personalidad que es el fundamento del orden político y de la paz social.

El derecho de la ciudadanía a participar en los asuntos políticos bien directamente bien por medio de representantes, debe promoverse y expresarse en todos los ámbitos, tanto en referencia a las personas individualmente consideradas, como respecto a los grupos de diversa naturaleza que la integran. En ese sentido, debe atenderse al artículo 69 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local disponiendo que las Corporaciones locales facilitaran la participación de la ciudadanía en la vida local.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, recoge entre sus principios el de concertación social, el de participación ciudadana y el de información pública, y establece para aquellos municipios con competencia propia o delegada para la aprobación definitiva de los Planes Generales la obligación de constituir un Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico como órgano local de carácter consultivo y deliberante, cuyo fin es llegar a concertar socialmente los planes urbanísticos. Este Consejo Asesor tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones de su Plan General de Ordenación Urbana.

El artículo 110 de la citada Ley remite la constitución y definición de las características básicas del Consejo Asesor a la aprobación de un Reglamento que cada Ayuntamiento debe formular, tramitar y aprobar. En este sentido, el Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Hondarribia fue aprobado inicialmente por el Ayuntamiento en Pleno en sesión celebrada día 27 de febrero de 2008. No habiéndose presentado alegaciones durante el periodo de información pública, el Reglamento quedó aprobado definitivamente y publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 8 de julio de 2008.

EK\CV GAO-I-2025-03775

Hondarribiko Udalak, Araudi honen bitartez, Hondarribiko Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen sorrera eta funtzionamendua arautu ditu, kontsultarako eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa, horrek artikulatuko baitu gizarteak hirigintzako planeamendu estrategikoan parte har dezan, eta, era berean, hirigintzako ondarea eta udalerriaren garapen arrazoizko eta iraunkorra bultzatu.

Hondarribiko Udalak egiaztatu du beharrezkoa dela aholku-batzordearen erregelamendua egokitzea; izan ere, alde batetik, jatorrizko testuak dagoeneko indargabetuta dagoen araudia aipatzen du, zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta beharrezkoa da legegintza-erreferentziak eguneratzea, gaur egun indarrean dauden Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari dagozkien erreferentziak sartuta.

Bestalde, hobetu zitezkeen beste alderdi batzuk ere bazeuden, batez ere herritarren parte-hartze eraginkorragoa bermatzeari dagokionez. Horretarako, Mugikortasun Iraunkorraren Mahaia hartu da erreferentzia gisa, mugikortasunari buruzko gaiak lantzeko kontsulta-foro bat, hiriko eragile ugariren parte-hartzearekin. Gizarte-mugimenduetako pertsonek, bizilagunek, erakunde publikoek, talde teknikoek eta eragile ekonomikoek osatzen dute mahaia.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7.7 artikuluan ezartzen duenez, Hondarribiko Udalak udal-plangintzaren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar du. Adierazitako araudiaren eta Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren (2023-2027) helburuen ildotik, komenigarritzat jo da Aholku Batzordearen osaera hizkuntzaren ikuspegitik aberastea.

Azkenik, adierazi behar da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenak, ezartzen duela administrazio publikoek tokiko araudiaren eta haren aplikazioaren jarraipena egin behar dutela emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera, eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa eta ez-sexista egin behar dutela; beraz, beharrezkoa da Erregelamenduaren idazkera egokitzea, berdintasun-printzipioa funtzionamenduan sartzeko, Batzordearen osaera aberasteko eta Erregelamenduaren gaztelaniazko bertsioan dauden idazkera sexistak ezabatzeko.

I. KAPITULUA

UDAL HIRIGINTZA PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK

*1. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortzea.*

1. Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluak xedatutakoarekin bat etortzeko, Araudi honen bitartez, Hondarribiko Udalaren Hirigintza Planeamenduko Aholku Batzordea sortu eta arautzen da.

2. Hondarribiko Udal Planeamenduko Aholku Batzordea tokiko organoa da, kontsulta eta eztabaida izaerakoa, kontzertazio sozialaren funtzioak betetzeko, gaitzat hartuta hiriko hirigintza planak egiteko, tramitatzeko eta onesteko prozedura.

*2. artikulua. Atxikipena.*

Udal Planeamenduko Aholku Batzordea hirigintzaren gaian eskumena duen udal arlora atxikitzen da.

*3. artikulua. Izaera Juridikoa.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan arautako kide anitzeko organoa da.

El Reglamento ha regulado el funcionamiento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Hondarribia como órgano colegiado, consultivo y deliberante, permitiendo articular la participación social en la planificación urbanística estratégica, impulsando la protección del patrimonio urbanístico y el desarrollo racional y sostenible del municipio.

El Ayuntamiento de Hondarribia ha constatado la necesidad de adaptar el reglamento del consejo asesor ya que, por un lado, el texto original hace referencia a normativa que ya ha sido derogada, en concreto a la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y es necesario actualizar las referencias legislativas, introduciendo las referencias que corresponden a Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y a la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, vigentes en la actualidad.

Por otro lado, había otros aspectos que podían ser mejorados, sobre todo en lo referente a garantizar una participación ciudadana más efectiva. Para ello se ha tomado como referente la Mesa de la Movilidad Sostenible, un foro consultivo para tratar temas de movilidad con la participación de una importante variedad de agentes de la ciudad. La Mesa está formada por personas de movimientos sociales, vecinas y vecinos, instituciones públicas, equipos técnicos y agentes económicos.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece en su artículo 7.7 la obligación del Ayuntamiento de Hondarribia de realizar la Evaluación de Impacto Lingüístico del Planeamiento Municipal. En línea con la normativa señalada, y con los objetivos del Plan Estratégico para la promoción del euskera (2023-2027), se ha considerado conveniente enriquecer la composición del Consejo Asesor desde la perspectiva lingüística.

Finalmente, hay que señalar que el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, establece que las administraciones públicas deben de realizar un seguimiento de la normativa local y de su aplicación de acuerdo con el principio de igualdad de mujeres y hombres, y deben hacer un uso inclusivo y no sexista del lenguaje, por lo que resulta necesario adecuar la redacción del Reglamento para introducir el principio de igualdad en su funcionamiento, enriquecer la composición del Consejo y para eliminar sesgos sexistas que existen en la versión en castellano del Reglamento.

CAPÍTULO I

NATURALEZA Y FUNCIONES DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO URBANÍSTICO MUNICIPAL

*Artículo 1. Creación del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal.*

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, mediante el presente Reglamento se crea y regula el Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico Municipal de Hondarribia.

2. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Hondarribia es un órgano local de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos de la ciudad.

*Artículo 2. Adscripción.*

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se adscribe al área municipal competente en materia de urbanismo.

*Artículo 3. Naturaleza Jurídica.*

El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal se configura como un órgano colegiado de los regulados en el artículo 15 y siguientes de Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

EK\CV GAO-I-2025-03775

*4. artikulua. Eginkizunak eta xedeak.*

1. Udal Planeamenduko Aholku batzordeari dagokio honako eginkizun hauek garatzea:

a) Planeamendu nagusiaren eta udalerriko hirigintza antolamendu egituratzailerako beste tresna batzuen gaian Udalak egiten dituen azterlanak, programak, jarduera-ildoak, proiektuak ezagutzea eta haiei buruzko txostenak egitea.

b) Udalak kontuan har ditzan beste erakunde batzuek planeamendu nagusiko erabakiei dagokienez mahai gaineratzen dituzten ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta alternatibak aztertzea.

c) Hirigintza antolatzeko Batzordeak jakiten duen beste edozein plan edo tresna ezagutzea, bereziki, Hirigintzako Ondarearen Katalogoa ukitzen duten antolamendu tresnak eta planak, eta, kasuan kasu, haiei buruz informatzea.

2. Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen proposamenek edo alternatibek gomendio-izaera izango dute udal gobernuko organoentzat, eta horiek erantzun funtsatuak eman beharko dizkie plangintzan txertatu ez diren edo aldatutako gomendio guztiei.

3. Nolanahi ere, dagokion hirigintza-dokumentua behin betiko onestean, Udalak justifikatu egin beharko du Aholku Batzordeak planteatutako irtenbideak ez diren beste batzuk erabakitzen baditu.

*5. artikulua. Txostenak egitea.*

1. Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak honako hauek nahitaez jakinaraziko ditu txostenean:

— Hiri Antolamenduaren Plan Nagusiaren osotasunezko edo zatikako berrazterketa.

— Sektorizazio Plana.

— Bateragarritze Plana.

— Plan Nagusiaren, Sektorizazio Planaren eta Bateragarritze Planaren aldaketa zehatzak.

2. Era berean, Aholku Batzordeak, gutxienez bertako kideen gehiengoak hala eskatzen duenean, bere txostenean sartu ahal izango ditu hirigintza antolatzeko beste plan, arau edo tresna batzuen ezagutza, eta haietaz informazioa eman.

3. Udalak ofizioz informatuko die Aholku Batzordeko kideei artikulu honetako 1. atalean adierazitako edozein espedienteren erredakzio teknikoa egiteko lanen hasieraz.

4. Aholku Batzordeak Aurrerakina jendaurrean jartzeko epea amaitu ondoren, eta irizpidea berretsi eta hasieran onetsi aurretik egin beharko ditu nahitaezko txostenak.

Aurrerakin-dokumenturik ez balego, planeamendua egiteko epearen eta kontsulta fasearen ondoren, eta hasieran onetsi aurretik egingo da nahitaezko txostena.

Gainera, plangintzako dokumentuaren berri emango zaio Batzordeari, hasieran onetsitako Proiektua jendaurreko informazio-tramitearen eta alegazioak erabaki ondoren, eta behin-behineko onespena eman aurretik.

Hala ere, Plan Nagusia osotasunean berraztertzeko espedientean, gainera, honako tramite hauek jakinaraziko zaizkio Batzordeari:

1. Hirigintzako informazioa eta Diagnostikoa.
2. Aurrerakinaren prestakuntza.
3. Aurkeztutako Aurrerakinaren eta Iradokizunen eztabaida.
4. Irizpideak eta Helburuak formulatzea.
5. Hasieran Onesteko dokumentuaren prestakuntza.

*Artículo 4. Funciones y fines.*

1. Corresponderá al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Conocer cuántos estudios, programas, directrices, líneas de actuación, proyectos se elaboren por el Ayuntamiento en materia del planeamiento general y otros instrumentos de ordenación urbanística estructural del municipio, así como emitir informes sobre los mismos.

b) El estudio de aquellas iniciativas, sugerencias, propuestas y alternativas relativas a las determinaciones de planeamiento general que desde otras instancias se planteen al Ayuntamiento para su consideración.

c) Conocer cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística sobre el que el Consejo recabe información, en particular, aquellos planes e instrumentos de ordenación que afecten al Catálogo del Patrimonio Urbanístico, e informar, en su caso, sobre los mismos.

2. Las propuestas o alternativas del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, teniendo éstos que dar respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que no sean incorporadas al planeamiento o modificadas.

3. En todo caso, en el acto de aprobación definitiva del documento urbanístico correspondiente deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

*Artículo 5. Emisión de informes.*

1. El Consejo Asesor del Planeamiento Municipal informará con carácter preceptivo en los expedientes de:

— Revisión total o parcial del Plan General de Ordenación Urbana.

— Plan de Sectorización.

— Plan de Compatibilización.

— Modificaciones puntuales del Plan General, del Plan de Sectorización y de Plan de Compatibilización.

2. Asimismo, el Consejo Asesor, cuando así lo soliciten al menos la mayoría absoluta de sus miembros, podrá recabar para su informe el conocimiento de otros planes, normas e instrumentos de ordenación urbanística e informarlos.

3. El Ayuntamiento informará de oficio a los miembros del Consejo Asesor del inicio de los trabajos de redacción técnica de cualquier expediente de los relacionados en el apartado 1 del presente artículo.

4. La emisión de los informes preceptivos del Consejo Asesor deberá realizarse tras el plazo de información pública del Avance y antes de la ratificación de criterios y aprobación inicial.

Si no hubiere documento de Avance, la emisión del Informe preceptivo será tras el plazo de formulación del planeamiento, fase de consultas, y antes de la aprobación inicial.

Además, se dará cuenta al Consejo del documento de planeamiento tras la información pública del Proyecto aprobado inicialmente y resolución de alegaciones y, antes de la aprobación provisional.

No obstante, en el expediente de Revisión total del Plan General se informará además al Consejo en los siguientes trámites:

1.ª Información urbanística y Diagnóstico.

2.ª Preparación del Avance.

3.ª Debate del Avance y Sugerencias presentadas.

4.ª Formulación de Criterios y Objetivos.

5.ª Preparación documento de Aprobación Inicial.

6. Hasieran Onesteko dokumentuaren eta Alegazioen eztabaida.

7. Behin-behinean Onesteko dokumentuaren prestakuntza.

5. Nahitaezkoak ez diren txostenak jendaurreko informazio-tramitearen ondoren egingo dira, eta tramite hori egongo ez balitz, Batzordeko Lehendakariak ezartzen duen epean.

6. Hirigintzako espedientea behin betiko onestean, Udalak justifikatu egin beharko du Aholku Batzordeak planteatutako irtenbideak ez diren beste batzuk erabakitzen baditu.

7. Txosten horiek epe barruan ematen ez badira, horiek onartzeko ardura duten udal-organoek aukera izango dute espedienteak izapidetzen jarraitzeko, eta baliteke behin betiko onespen-egintzan epez kanpo egindako txostenen edukia kontuan ez hartzea.

II. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAKETA

*6. artikulua. Osaketa eta kideak.*

1. Honako kide hauek izango dira, hitza eta botoa dutela, Aholku Batzordea osatuko dutenak:

Udaleko Alkatea; bera izango da Batzordeko Lehendakari.

Hirigintzako zinegotzi delegatua, lehendakariordea izango dena.

Ingurumenaren arloan eskumena duen gobernu-arloko titularra. Alkatetza eta hirigintza-arloaren titulartasuna pertsona berarenak badira, lehendakariordea izango da.

Nekazaritza eta mendiak arloko zinegotzi-ordezkaria.

Udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.

Auzo-elkarte bakoitzeko ordezkari bat.

Hiriko ekologisten edo ingurumenaren aldeko elkarteen ordezkari bat. Erakundeen kopurua ordezkariena baino handiagoa bada, ordezkari komun bat adostu beharko dute, txanda-sistema bat ezarri beharko dute edo, bestela, zozketa bidez egingo da.

Merkatari-elkarte bakoitzeko ordezkari bat.

Hiriko kultur elkarteen ordezkari bat. Erakundeen kopurua ordezkariena baino handiagoa bada, ordezkari komun bat adostu beharko dute, txanda-sistema bat ezarri beharko dute edo, bestela, zozketa bidez egingo da.

Hiriko ostalaritza-elkarte bakoitzeko ordezkari bat.

Hiriko kirol-kluben ordezkari bat. Erakundeen kopurua ordezkariena baino handiagoa bada, ordezkari komun bat adostu beharko dute, txanda-sistema bat ezarri beharko dute edo, bestela, zozketa bidez egingo da.

San Pedro Itsas-Gizonen Kofradiaren ordezkari bat.

Behemendi Elkartearen ordezkari bat.

Berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan aditua den pertsona bat; ordena honi jarraituz: udal-berdintasuneko teknikaria, halakorik ezean, Berdintasun Mahaiak izendatutako pertsona bat, eta, halakorik ezean, Emeki elkarteko ordezkari bat.

6.ª Debate documento de Aprobación Inicial y Alegaciones presentadas.

7.ª Preparación documento de Aprobación Provisional.

5. La emisión de los informes no preceptivos coincidirá también con el periodo de información pública y si no hubiere dicho trámite en el plazo que fijará la Presidencia del Consejo.

6. En el acto de aprobación definitiva del expediente urbanístico deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.

7. Lo no emisión en plazo de los citados informes habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación para proseguir con la tramitación de los expedientes pudiendo no ser tenido en cuenta en el acto de aprobación definitiva el contenido de los informes que se hubieren emitido extemporáneamente.

CAPÍTULO II

COMPOSICIÓN DEL CONSEJO ASESOR DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL

*Artículo 6. Composición y miembros.*

1. El Consejo Asesor estará compuesto por los siguientes miembros con voz y voto:

El Alcalde o la Alcaldesa del Ayuntamiento, que ostentará la Presidencia del Consejo.

La persona que ostente la Concejalía Delegada de Urbanismo, que ostentará la Vicepresidencia.

La persona titular del área de Gobierno competente en materia de Medio Ambiente, que ostentará la Vicepresidencia en el supuesto de que la Alcaldía y la titularidad del área de Urbanismo coincidan en la misma persona.

La persona que ocupe la Concejalía Delegada del área de agricultura y montes.

Una persona representante de cada uno de los grupos políticos municipales.

Una persona representante por cada una de las asociaciones de vecinos y vecinas.

Una persona representante de las Asociaciones ecologistas o ambientalistas de la ciudad. En el caso de que el número de entidades sea superior al de representantes deberán acordar un representante común, establecer un sistema de turnos o, en su defecto, se procederá por sorteo.

Una persona representante por cada asociación de comerciantes.

Una persona representante de las asociaciones culturales de la ciudad. En el caso de que el número de entidades sea superior al de representantes deberán acordar un representante común, establecer un sistema de turnos o, en su defecto, se procederá por sorteo.

Una persona representante por cada asociación de hostelería de la Ciudad.

Una persona representante de los clubs deportivos de la ciudad. En el caso de que el número de entidades sea superior al de representantes deberán acordar un representante común, establecer un sistema de turnos o, en su defecto, se procederá por sorteo.

Una persona representante de la Cofradía de Mareantes de San Pedro.

Una persona representante de la asociación Behemendi.

Una persona experta en igualdad y perspectiva de género; siguiendo el siguiente orden: la técnica de Igualdad Municipal, en su defecto, una persona designada por la Mesa de Igualdad, y, en su defecto, una persona representante de Emeki.

EK\CV GAO-I-2025-03775

Euskara sustatzeko Hiriko elkarteen ordezkari bat. Erakundeen kopurua ordezkariena baino handiagoa bada, ordezkari komun bat adostu beharko dute, txanda-sistema bat ezarri beharko dute edo, bestela, zozketa bidez egingo da.

Aholkulari lanetan arituko dira Batzordean, hitza dutela, baina botorik ez, honako teknikari hauek:

Udal Arkitektoa.

Arqueolan edo Aranzadiko ordezkari bat, hauek ordezkari komun bat adostu beharko dute, txanda-sistema bat ezarri, edo, bestela, zozketa bidez egingo da.

Udal Arkeologoa.

HAPO-aren erredakzio-taldearen burua eta koordinatzailea.

Bidasoa Activako ordezkari bat.

Udalari aholkularitza juridikoa ematen dion pertsona.

Udal-idazkaria, Kontseiluko idazkaria izango da.

Lehendakariak edo Batzordekideen herenak proposatuta, honako hauek parte hartu ahal izango dute Batzordean, aholkulari gisa, hitza dutela, baina botorik ez:

— Hirigintzako planak idazteko ardura duten teknikariek.

— Hirigintzan nahiz Ingurumen edo/eta Ondare gaietan ezagutza duten adituek.

— Beste teknikari espezialista batzuek, Batzordean jorratu beharreko gaiak direla eta egoki iritziz gero.

Batzordearen bileretan teknikari horiek egotea adostu edo eskatu egin beharko zaio Lehendakaritzari, bileraren deialdia jakin ondoren eta bilera egin aurretik, eta han egon daitezen garaiz eskatuta.

Era berean, Lehendakaritzak proposatuta eta gaia dela eta, 6.1 artikuluan aipatutako teknikariak salbuetsita geratu ahal izango dira bilera zehatzetara joatetik, eta justifikatu egin beharko da Kontseiluaren bileretan aztertu beharreko gaiek ez dietela zuzenean eragiten.

2. Nolanahi ere, Kontseiluan parte hartzen duten elkarteek Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoa bete beharko dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuarekin bat etorriz.

3. Lehendakariak proposatuta, Batzordera joan daitezke, hitza dutela baina botorik ez, kaltetutako eremuaren defentsarako pertsonak, kolektiboak edo plataformak, haiek eskatzen dutenean.

4. Honako kide hauek guztiak izango dira, hitza eta botoa dutela, Hondarribiko Udal Planeamenduko Aholku Batzordea osatuko dutenak.

a) Presidentzia. Alkatetza betetzen duen pertsona izango da lehendakaria edo Hirigintzako zinegotzi delegatua, hargatik eragotzi gabe bilkuretako lehendakaritza Lehendakariordetzari eskuordetu ahal izatea.

b) Batzordekideak. Gainerako hango kideak izango dira Batzordekide.

